

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



20-04C



ALCATEL
onetouch.

smart move.

Edukien taula

1	Martxan jartzea.....	6
1.1	Erabiltzeko moduan jartzea	6
1.2	Telefonoa piztea.....	11
1.3	Telefonoa itzaltzea.....	11
2	Zure telefonoa.....	12
2.1	Teklak.....	12
2.2	Egoera-barrako ikonoak	16
3	Deiak egitea.....	17
3.1	Dei bat egitea.....	17
3.2	Ahots-postontzira deitzea.....	21
3.3	Deiak jasotzea.....	22
4	Laguntza (SOS).....	23
4.1	SOS kontaktuak.....	23
4.2	SOS mezuak	23
5	Menu-pantaila.....	24
5.1	Menu nagusira sartzea.....	24
5.2	Azpimenuan sartzea	25
6	Kontaktuak	26
6.1	Agenda kontsultatzea	26
6.2	Kontaktuak gehitzea	27
6.3	Kontaktuak ezabatzea	29
7	Mezuak.....	30
7.1	Mezua idaztea.....	30
7.2	Mezua irakurtzea.....	33
7.3	Ezarpenak.....	34
8	FM irratia	36
9	Alarma	38

10 Kamera	39
11 Eguraldia	40
12 Tresnak	41
12.1 Kalkulagailua.....	42
12.2 Egutegia	42
12.3 Irudiak.....	42
12.4 Bideoak.....	42
12.5 Ahots-abisua.....	43
12.6 Fitxategiak.....	43
12.7 Bluetootha	43
12.8 SIM Zerbitzuak	43
13 Ezarpenak	44
13.1 Orokorra	44
13.2 Soinua	45
13.3 Pantaila.....	45
13.4 Dei-ezarpenak.....	45
13.5 Laguntza	45
13.6 Sarea.....	45
13.7 Segurtasuna	46
13.8 Legeak eta segurtasuna.....	46
13.9 Balioak berrezartzea.....	46
14 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari..	47
15 Testua idazteko modua	49
Erabiltzeko oharrak	50
Informazio orokorra	64
Telefonoaren bermea.....	66
Arazoak eta irtenbideak.....	69

Eskuliburu laburra

Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu www.alcatelonetouch.com webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa (ingelesez bakarrik). Webgune horretan, ohiko galderak (FAQ) ere kontsultatu ahal izango dituzu (ingelesezko bertsioa bakarrik).

Hemen
jarraitu
gaitzakezu:



ALCATELONETOUCHspain



ALCATEL
onetouch®

The logo features the letters 'SAR' in a bold, blue, sans-serif font. A large, light blue checkmark is positioned behind the letters, with its top extending above the 'A' and its bottom extending below the 'R'.

www.sar-tick.com

Telefono honek 2,0 W/kg-ko estatuko SAR muga errespetatzen du.

Gehieneko SAR balio espezifikoak erabiltzailearen eskuliburu honetako 59. orrian azaltzen dira.

Produktua garraiatzean edo gorputzetik gertu daramazunean, erabili horretarako onartutako osagarri bat (estalki bat) edo gorputzetik 1,5 cm-ra izan, irrati-maiztasunen esposizioei buruzko eginbeharrak betetzen direla ziurtatzeko. Kontuan izan produktuak erradiazioa igor dezakeela deitzen ari ez bazara ere.




BABESTU BELARRIAK

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili entzungailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago.


Martxan jartzea.....

I.I Erabiltzeko moduan jartzea

Atzeko estalkia ateratzea edo jartzea



Bateria jartzea eta ateratzea







Sartu bateria, eta lerratu bere lekuan klik egin arte.


Ireki tapa, eta, gero, atera bateria.

SIM txartela sartzea eta ateratzea

Deiak egiteko, SIM txartela sartu behar duzu.




SD txartela sartzea eta ateratzea



Bateria kargatzea


Telefonoa honela karga daiteke:

a.



Telefonoa kargatzeko, haren azpiko konektorea oinarrian jarri behar da, eta, ondoren, bateriaren kargagailua oinarrira konektatu eta korrante hartune batera entxufatu.

b.



Konektatu bateria-kargagailua telefonora, eta entxufatu korronte-hargune batera.

- Ez behartu konektorea korronte-hargunean sartzen duzunean.
- Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
- Korronte-harguneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikorik ez erabiltzea gomendatzen da).



Bateria- eta energia-kontsumoa gutxiteko, bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua entxufetik, murriztu hondoko argiaren denbora, eta abar.

1.2 Telefonoa piztea


Luze sakatu  tekla telefonoa piztu arte.

1.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu pantaila nagusiko  tekla.

2 Zure telefonoa ..

2.1 Teklak



- 1 Menu-/Norabi-de-tekla
- 2 Hautaketa-tekla/Deitzeko
- 3 Atzera egiteko/Deia amaitzeko tekla
- 4 Ahots-postontziaren tekla

Laguntza-tekla (SOS)



Kamera

Bolumena
igotzeko

Bolumena
jaisteko



Linternaren
tekla

Blokeatzeko
tekla





Itxarote-pantailan:

- Sakatu: menu nagusira joateko



Deitzeko tekla

- Telefonoa hartzeko / Deitzeko
- Sakatu: deien erregistroa irekitzeko (itxarote-pantailatik)



- Pulse: deia amaitzeko
Itxarote-pantailara itzultzeko
Karaktereak ezabatzeko (editatzeko moduan)
- Luze sakatu: pizteko/itzaltzeko.



Itxarote-pantailan:

- Sakatu: 0
- Luze sakatu: “+/P/W”.

Editatzeko moduan:

- Sakatu: sinboloen taulara joateko
- Sakatu: 0 (testua idatzeko modua **Txertatu zenbakiak** denean).
- Luze sakatu: 0 Itxarote-pantailan:
- Sakatu: *



Editatzeko moduan:

- Sakatu: idazteko moduak aldatzeko.
- Luze sakatu: hizkuntzen zerrendara joateko.



Itxarote-pantailan:

- Sakatu: #
- Luze sakatu: markaketa bizkorrera joateko.

Editatzeko moduan:

- Sakatu: (zuriunea)

2.1 Egoera-barrako ikonoak ⁽¹⁾



Bateriaren karga-maila.



Dei-desbideratzea aktibatuta.



Alarmak edo hitzorduak programatuta.



Estaldura-adierazlea.



Irratia piztuta.



Roaminga.



Irakurri gabeko SMSa.



Modu isila



Dei galduak.

(1) Eskuliburu honetako ikonoek eta irudiek orientazio gisa balio dute.



Alerta bibrazioarekin





Entzungailua



Hegazkin-modua.


3 Dei bat egitea....


3.1 Nola egin deiak

Markatu nahi duzun telefono-zenbakia, eta sakatu  tekla dei bat egiteko. Akatsen bat egin baduzu, sakatu  tekla zenbaki okerrak ezabatzeko.



Deien historiatik ere deitu dezakezu:

Lehenik, sakatu  tekla, itxarote-pan-tailan, deien erregistrora sartzeko eta deitu nahi duzun kontaktuaren zenba-kia hautatzeko. Orain, hautatu **Auker.**



Hautatu **Deitu.**




Agendatik deitu nahi baduzu, hautatu **Kontaktuak\Auker.\Deitu**

Menu nagusian, aukeratu **Kontaktuak**.



Hautatu markatu nahi duzun zenbakia, hautatu **Auker.** eta, azkenik, hautatu **Deitu.**



Esekitzeko, sakatu  tekla. (hautatu **Bukatu**)




Larrialdi-deiak egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu bidaltzeko tekla, larrialdi-deia egiteko. SIM txartelik gabe ere funtzionatzen du, baita PIN kodea sartu gabe ere.



3.2 Ahots-postontzira deitzea (I)

Ahots-postontzira sartzeko, sakatu luze **1** tekla. Ahots-postontzia editatzeko, hautatu **Mezuak\ Erantzungailua\Auker.\Aldatu** eta ahots-postontziko izena eta zenbakia editatu ahal izango dituzu. Azkenik, hautatu **Gorde**.



- (I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, ondoren, sakatu  tekla deia amaitzeko.

Sakatu **Onartu** deia hartzeko.



Dei bat ez onartzea

Sakatu behin  tekla.

Sakatu **Ukatu** deiari uko egiteko.



4 Laguntza (SOS)

4.1 SOS kontaktuak

SOS kontaktuetara SOS zenbaki bat gehitzeko, hautatu **Ezarpenak\Laguntza\SOS kontaktuak** eta sakatu **Editatu**. Ondoren, SOS zenbakiak editatu ahal izango dituzu.


4.2 SOS mezuak

Menu nagusian, hautatu **Ezarpenak\Laguntza\SOS mezua**, larrialdi-mezu bat sortzeko.

5 Menu-pantaila....


5.1 Menu nagusira sartzea


Sakatu  itxarote-pantailan, menu nagusira sartzeko.

Menu nagusia erabil daiteke gogokoenak hautatzeko,  eskuinera edo ez-kerrera sakatuta.



5.2 Azpimenuan sartzea

Azpimenuan sartzeko, sakatu  gora edo beheara, menu nagusian.



6 **Kontaktuak**

6.1 Agenda kontsultatzea

Funtzio honetara sar zaitezke menu nagusian **Kontaktuak** aukeratuta.

Kontaktuak bilatzea


Kontaktu bat bila dezakezu, haren izenaren hasiera idatzita. Bilaketa hobetzeko, letra gehiago idatz ditzakezu.

Kontaktu bat ikustea

Hautatu aurkibideko izen bat, kontaktuari buruzko informazioa ikusteko.

6.2 Kontaktuak gehitzea

Kontaktu berri bat gehitu dezakezu telefonora edo SIM txartelera **Ados** sakatuta eta **Berria** hautatuta, eta “Sortu fitxategia” pantailara joanda.

Lehenik, sakatu  itzarote-pantailan, **Kontaktuak** aukerara joateko, eta hautatu **Ados**.





Ondoren, hautatu **Berria**.



Hirugarrenik, kontaktu berria telefonoan edo SIM txartelean sartu nahi duzun hautatu.




Azkenik, editatu izena eta zenbakiak, eta gorde.




6.3 Kontaktuak ezabatzea

Aukeratu ezabatu nahi duzun kontak-tua, eta sakatu  **Auker.** hautatzeko.




Ondoren, hautatu **Ezab.** kontaktua ezabatzeko.



7 Mezuak.....

7.1 Mezua idaztea

Mezuaren pantailan, hautatu **Ados\Be-
rria** testu- edo multimedia-mezu bat
idazteko.



Nola idatzi mezuak:

Testu bat idazteko, modu arrunta edo prediktiboa erabil ditzakezu Testua idazteko modua ezartzeko, hautatu **Auker.\\Idazk.** metodoa.


Testua idazteko modu arruntarekin, sakatu sakatu 1etik 9ra arteko zenbaki-teklak hainbat aldiz, nahi duzun karakterea bistaratu arte. Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte.

Modu prediktiboa aukeratzen baduzu,, hasi idazten hitz bat 2tik 9rako zenbaki-teklak erabilita; sakatu tekla behin eta hitza aldatu egingo da tekla bat saketzen duzun bakoitzean. Idazten ari zarela, hitza aldatu egingo da.

Adibide, “**ALCATEL**” idazteko, sakatu tekla hauek:

2 ABC, **5** JKL, **2** ABC, **2** ABC, **8** TUV -->

ALCATEL



Puntuazio-zeinu bat edo karaktere bereziren bat gehitzeko, sakatu **0 +** tekla.

Idatzi dituzun letrak edo ikurrak kendu nahi badituu, sakatu **←** banan-banan ezabatzeko.

7.2 Mezua irakurtzea

Mezuaren pantailan, hautatu **Ados\ Sarrerako ontzia testu- edo multi-media-mezu** bat irakurtzeko.

Nola irakurri mezuak:

Mezu bat jasotzen duzunean, jakinarazpen bat bistaratuko da itxarote-pantailan. Sakatu **Auker.** hura irakurtzeko, edo **Atzera** irakurri gabe uzteko.

Jasotako eta bidalitako mezu guztiak ikusi nahi izanez gero, hautatu **Mezuak\Sarrerako ontzia\Irteerako ontzia\ Bidalitakoak.**

Mezu bat idazten ari zaren bitartean, hautatu **Auker.**, mezuen aukera guztietara sartzeko.

Maiz bidaltzen dituzun mezuak “Zirriborro” gisa gorde ahal izango dituzu.

7.3 Ezarpenak

SIM txartela

- **SIM txartela** Balio-epea, mezu-mota, bidalketa aktibatzea edo desaktibatzea, eta beste zenbait funtzio konfiguratu ditzakezu.
- **Memoriaren egoera** Erabiltzen ari zaren memoria bistaratzen du: telefonokoa edo SIM txartelekoa.
- **Alfabetoaren kudeaketa** SMSen bidalketa kudeatzeko SMSen datuen kodeketa zehazteko balio du.

- **Datuen kontua** Hautatu multime-
dia-mezuetarako
nahi duzun kone-
xio-profila.
- **Ezarpen orokorrak** Orri bakoitzaren
denbora, balio-e-
pea, biltegiatze
-tokia eta abar
doitu ditzakezu,
memoriaren egoe-
ra egiazta dezake-
zu, eta abar.

8 FM irratia

Telefonoaren irratia⁽¹⁾ RDS⁽²⁾ funtzioa du. Aplikazioa irradi arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gordeta eduki. Beste aplikazio batzuk exekutatzeko dituzun bitartean ere entzun dezakezu irratia.

Lehenengo, irratia pizteko, hautatu **FM irratia** menu nagusian.




- (1) Irratiaren kalitatea zauden eremuan kateak duen estalduraren arabera da.
- (2) Sare-operadorearen eta merkatuaren arabera.

Ondoren, bilatu kanala, **Ados\Auker.\ Bilaketa autom** hautatuta (funtzio hau lehenengo aldiz erabiltzen duzunean). Irrati-kateak automatikoki gordeko dira **Kanal-zerr.** aukeran; zerrenda horretan bertan hauta deza-kezu bat.



9 Alarma.....


Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta errepikapen-funtzioa dauka. Alarma konfiguratu dezakezu menu nagusian **Alarma\Ados\ Editatu** hautatuta.



Ordua konfiguratu dezakezu Alarmaren goiko pantailan sartuz gero. Hautatu **Editatu**, alarma zein egunetan errepikatzea nahi duzun hautatzeko, errepikapen-tarteak ezartzeko, doinuaren modua hautatzeko eta doinua hautatzeko.

10 Kamera.....

Zure mugikorrak kamera du, eta argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu harekin; sartzeko, hautatu **Kamera** eta sakatu **Ados**.



Funtzio honekin aukera hauek dituzu:

- Argazkiak eta bideoak gorde ditzakezu, telefonoan edo SD txartelean, Nire sorkuntzak atalean.
- Zuzenean MMS edo Bluetooth bidez bidal ditzakezu.
- Pantaila nagusia argazki batekin personalizatu, eta abar.

|| Eguraldia⁽¹⁾

Zure telefonoak funtzio meteorologikoa du, eta, horri esker, zure gogoko hirietako eguraldi-iragarpena, gehienez hiru egunetakoa, kontsultatu dezakezu.



Aurreko pantailan, hautatu **Ados/Auker./Iragarpena** informazio xeheagoa ikusteko.

(1) Baliteke eskuragarri ez egotea

12 Tresnak.....

Menu honetan sartu ondoren, saka-tu **Ados** ondorengo funtzioetarako lehentasunak hautatzeko: **Kalkula-gailua, Egutegia, Irudiak, Bideoak, Ahots-abisua, Fitxategiak, Blue-tooth** eta **SIM Zerbitzuak**.



12.1 Kalkulagailua

Sartu zenbaki bat, hautatu zer eragiketarik egin nahi duzun, eta sartu bigarren zenbakia. Sakatu **Berdin** emaitza ikusteko.

12.2 Egutegia

Aukera honetan sartuz gero, hilabetearen ikuspegia duen egutegi bat ikusiko duzu (datak, hitzordu garrantzitsuak eta abar)


12.3 Irudiak

Irudi edo argazki bat hauta dezakezu pantaila-atzealde gisa edo pizteko/itzaltzeko unerako animazio gisa.

12.4 Bideoak

Funtzio honetan sartuta, bideoak erreproduzitu, bidali, berrizendatu, ezabatu eta biltegiratu ditzakezu.

12.5 Ahots-abisua

Menu honen bidez, ahots-fitxategi berri bat sor dezakezu, eta alarma gisa ezarri. Hautatu **Berria** eta hasi ahots-mezuak grabatzen, sakatu , eta hautatu **Bai**, egun eta ordu jakin batekin gordetzeko.

12.6 Fitxategiak

Telefonoan edo memoria-txartelean jasotako soinu- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke.

12.7 Bluetootha


Bluetootha aktibatu/desaktibatu dezakezu, parekatutako gailuen zerrenda ikusi, ekipoareen izena editatu, eta abar.

12.8 SIM Zerbitzuak

Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

13 Ezarpenak.....

Pantaila nagusian, aukeratu **Ezarpenak\Ados**, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko.



13.1 Orokorra

Doikunta orokorrak aldatzeko, hautatu **Orokorra** eta aukera hauek ikusiko dituzu: **Hegaldi modua**, **Ordua** eta **data**, **Hizkuntzak** eta **Idazketa modua**

13.2 Soinua

Menu honekin, soinuaren modua konfiguratu dezakezu: **Orokorra**, **Dardara** eta **Isilik**.

13.3 Pantaila

Funtzio honek aukera ematen dizu telefonoaren gaia hautatzeko, pantaila-atzealdea pertsonalizatzeko, LCD pantailaren distira-maila doitzeko eta atzeko argiaren denbora ezartzeko.

13.4 Dei-ezarpenak

Aukera hauek aktibatu edo desaktibatut ditzakezu, besteak beste: **Teklatua**, **Birmarkatze automatikoa**, **Ahotsez lagundutako markatzea** eta **Zarata-ezeztatzea**.

13.5 Laguntza

Ikusi Laguntza (SOS), 23. orrialdean.

13.6 Sarea

Sar zaitez funtzio honetara zer sare nahi duzun eta nola bilatu nahi duzun hautatzeko eta ezartzeko.

13.7 Segurtasuna

Zure telefonoa babesteko, PINa eta pasahitza aktibatu eta alda ditzakezu. Hasierakoa 1234 da. Funtzio honek telefonoa blokeatzeko aukera ere ematen dizu PIN2a edo **FDN**a aktibatuta.

13.8 Legeak eta segurtasuna

Telefonoari buruzko informazioa kontsultatu dezakezu: **Produktuaren modeloa, Fabrikatzailearen izena, Fabrikatzailearen helbidea, IMEI** eta **CU** erreferentzia.

13.9 Balioak berrezartzea

Horri esker, telefonoaren doikuntzetan balio lehenetsiak berrezartzen dira. Ez dira ezabatuko azken erabiltzailearen datuak. Sartu pasahitz lehenetsia (1234), berrezartzea edo berrabiaraztea berresteko.

I 4 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari ...

Mobile Upgrade

Mobile Upgrade tresnaren bidez, zure telefonoaren softwarea eguneratu dezakezu ordenagailutik.

Deskargatu Mobile Upgrade tresna ALCATEL ONE TOUCH webgunean (www.alcatelonetouch.com), eta instalatu ezazu PCan. Abiarazi tresna, eta eguneratu zure telefonoa, argibideak urratsez urrats jarraituz (kontsultatu tresnarekin batera datorren erabiltzailearen eskuliburua).

Hala, zure telefonoak programarik modernoena izango ditu.



Informazio pertsonal guztia
behin betiko galduko da egune-
ratze-prozesuaren ondoren.

Sistema eragile bateragarria

Windows XP/Vista/Windows 7.

15 Testua idazteko modua.....

Mezuak idazteko bi modu daude:

- Arrunta: modu honekin, letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko.
- Prediktiboa, eZi moduarekin: testua azkarrago idazteko balio du.

Teklatuarekin idaztea:

Sakatuta sinboloen taulara joaten da

Sakatuta idazteko metodoak aldatzen ditu.

Sakatuta zuriunea sartzen du.

Erabiltzeko oharrak

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule.

• IBILGAILUKO SEGURTASUNA:

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, gidatzean telefono mugikorra erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku-libreko eramangarria...) erabiltzen denean ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili ez telefonoa, ez aurikularrak musika edo irrattia entzuteko. Entzungailuak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea. Telefonoak erradiazioa igortzen du piztuta dagoenean, eta horrek interferentziak sortzake ibilgailuko ekipo elektronikoetan; adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar.

Beraz:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- galdetu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo konzesionarioari ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

• ERABILTZEKO KONDIZIOAK:

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko. Itzali telefonoa hegazkinetan. Ez piztu telefonoa ospitaletan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Gailu hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Errespetatu arauak erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabrikeetan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri inoiz telefonoa tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrian, ipini beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik. Bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako. Ez utzi hurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo haiekin jolasten zu inguruan ez bazaude. Karkasa desmuntagarria ordezkatzeko, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbi batean.

Ez utzi telefonoa kondizio txarrak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa eta abar). Fabrikatzaileak $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ eta $+55\text{ }^{\circ}\text{C}$ bitarteko tenperatura gomen datzen du.

$55\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik. Telefono-sare batzuetan, ezin da deitu zenbait larrialdi-zenbakitara. Larrialdi-deiak egiteko, ez egon zure telefonoaren mende soilik.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti, eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren Alcatel ONETOUCH bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili. Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Ez bota telefonoa udalaren edukiontzietara.

Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsia-krisirik edo korde galerarik inoiz izan ez dutenei ere gerta da-
kieke. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideo-joko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsuak aktibatu aurretik. Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsuak dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi, eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek izateko arriskua txikitzeko, hartu neurri hauek:

- Nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jokatu telefono mugikorrarekin, eta ez erabili argi distiratsua duen funtziorik.
- Ordu oro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu.
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedea hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,

- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badu, ez jokatu gehiago, eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, baliteke eskue-tako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputze-ko beste atalen bateko giharretako mina edukitzea. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



BABESTU BELARRIAK

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili entzun-gailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago

• **BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA**

Telefono mugikorrek argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, baliteke erabat debekaturik egotea beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela uler bailiteke. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

• **BATERIA:**

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.

Bateria erabiltzean, ohar hauek izan behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, eta ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu indarrean dauden ingurumena babesteko legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limitedek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabili ezin dituzunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.

- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta, haien osagaiak, bererabili.

Europar Batasuneko herrialdeetan:

Doakoa da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

• **KARGAGAILUAK:**

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko ekipoen segurtasun-arriskuak betetzen ditu, eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago. 2009/125/EE Ekodiseinuari buruzko Direktiba ere betetzen du.

• **UHN ELEKTROMAGNETIKOAK:**

Telefono mugikorren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea, batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena, eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

TELEFONO MUGIKOR HONEK UHN
ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI
BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK
BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorrak irrati-uhinak (uhin elektromagnetikoen irrati-maiztasuna) igorri eta jasotzen ditu, eta nazioarteko araudietan gomendatzen diren uhin elektromagnetikoekiko esposizioari buruzko mugak errespetatzeko diseinatu da. Arau horiek zientzia-batzorde pribatu batek garatu ditu (ICNIRP, Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak), eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko segurtasun-tarte garrantzitsu bat barnean hartzen dute, erabiltzaile horien adina edo osasun-egoera edozein direla ere.

Absortzio espezifikoa-ren tasa (SAR, Specific Absorption Rate) deritzon neurri-unitatea erabiltzen dute uhin elektromagnetikoekiko esposizioari buruzko arauak. Unitate horrek telefono mugikorrekin igortzen duten irrati-maiztasuna neurtzen du. Telefono mugikorretarako, 2,0 watt/kilogramo muga dago. SAR probak potentzia-mailarik altuena igortzen duten telefono mugikorretan egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. Hauek dira SAR balio altuenak, ICNIRP batzordeak modelo honetarako ezarritako arauen arabera:

Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehienezko SAR balioa.		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	GSM 900 + Bluetootha	0.657 W/kg
Gorputzerako SAR balioa	GSM 900 + Bluetootha	0.882 W/kg

Telefono honen benetako SAR balioak, erabiltzen den bitartean, adierazitako balio horiek baino baxuagoak dira oro har. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Zenbat eta txikiagoa izan telefonoaren potentzia, orduan eta txikiagoa izango da haren SAR balioa.

Gorputzeko SAR probak egiteko, 10 mm-ko tartea utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Zuk erabiltzen duzun osagarria baimendua ez bada, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak, FDAk (US Food and Drug Administration, Elikagaiak eta Sendagaiak Kontrolatzeko Estatu Batuetako Erakundea) eta beste erakunde batzuek jakinarazi dute kezkatuta daudenek eta esposizioa murriztu nahi dutenek esku libreko gailu bat erabil dezaketela telefonoa burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko deietan, edo telefonoan igarotzen duten denbora murriz dezaketela.

Informazio gehiago izateko, ikus www.alcatel-netouch.com webgunea. Hurrengo orri honetan, eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazioa duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu, eta ez hondatu. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke. Entzungailuekin edo USB datu-kablearekin erabiltzean, gailuak zehaztutako jarraibideak bete behar ditu. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta jarri telefonoa gorputzetik 10 mm-ra gutxienez.

- **Araudiari buruzko informazioa**

Ohar eta onarpen hauek eskualde batzuetan aplikatzen dira, adierazten den bezala.



• LIZENTZIAK:

 eZiText™

zi corporation

 microSD



Zi corporation-en eta/edo haren bazkideen marka komertzialak dira eZiText™ eta Zi™.

MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.

Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira, eta TCT Mobile Limitedek eta haren filialek lizentziapean erabiltzen dituzte marka horiek. Gainerako marka eta izen komertzial guztiak dagozkien jabeenak dira.

ALCATEL

ONETOUCH

2004C Bluetooth

Declaration ID D022118

Audifonoekiko bateragarritasuna

“Audifonoekiko bateragarritasuna” ziurtagiria du zure telefonoak, audifonoak erabiltzen dituztenei beren aparatuekin bateragarriak diren telefonoak aurkitzen laguntzeko. Telefono hau bateragarria da HAC M3/T4rekin. Erreferentzia: ANSI C63.19-2007

Informazio gehiago behar baduzu, zoaz entzumen-arazoak dituztenentzako telefono mugikorren bateragarritasunen gidara, edo sartu <http://www.alcatelonetouch.com> webgunera.

Informazio orokorra

- Interneteko helbidea: www.alcatelonetouch.com.
- Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia: Ikusi “TCT Mobile Services” liburuxka edo Interneteko gure gunea.
- Helbidea: Room 1910-12A, Tower 3, China HK City, 33 Canton Road, Tsimshatsui, Kowloon, Hong Kong.
- Etiketatze elektronikorako bidea: ukitu Ajustes\ Normativa y seguridad, edo sakatu *#06#; etiketatzeari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu ⁽¹⁾.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango zara posta elektronikoz galderak egiteko.

Erabiltzailearen eskuliburu honen ingelesezko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak gure webgunean deskargatu ditzakezu:

www.alcatelonetouch.com

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailu bat da. GSM sareetan funtzionatzen du, 850, 900, 1.800 eta 1.900 MHz-eko bandetan.

CE | 588

(1) Herrialdearen arabera.

Ekipo honek 1999/5/EE direktibaren oinarritzko betebeharrak eta beste zenbait direktiba betetzen ditu. Zure telefonoaren Adostasun Deklarazioaren kopia osoa eskuratu dezakezu gure web-orrian: www.alcatelonetouch.com

Lapurreten aurkako babesa⁽¹⁾

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (*#06# teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin, telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea eskuliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, zure telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.

Halako desberdintasunik izanez gero, TCT Mobilek ez ditu bere gain hartzen, ez eta desberdintasun horiek eragin ditzaketen ondorioak ere; erantzukizun hori operadorearena bakarrik izango da.

- (1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

Telefonoaren bermea

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako⁽¹⁾, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEla, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman behar duzu.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den.

- (1) Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

Konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriak hiru (3) hilabeteko bermea dute akats bere-rako. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriak arrazoi hauengatik izaten dituzten akatsak:

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarrai-bideak edo segurtasun-arauak eta arau tekni-koak ez betetzeagatik.
- 2) TCT Mobile Limitedek emandakoa edo go-mendatutakoa ez den ekipo batera konekta-tzeagatik.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Li-mitedek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-lanetako zentroak baimendu gabe-ko herritar partikularrek egiteagatik.
- 4) TCT Mobile Limitedek baimendutakoak ez di-ren pertsona batzuek software- edo hardwa-re-aldaketak edo -doikuntzak egin badituzte.
- 5) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxi-boak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo serie -zenbakiak (IMEI) kenduta badaude. Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.


Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egotzen ez badie. Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraikiz, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902113119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS
Immeuble Le Capitole
Parc des Fontaines
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
Frantzia

Arazoak eta irtenbideak.....

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik argibide hauei kasu egitea gomendatzen da:


- Bateriaren funtzionamendua optimizatzeko, oso-rik kargatzea gomendatzen dizugu ().
- Ez gorde datu-kantitate handirik telefonoan, horrek funtzionamenduari eragin baitiezaioke.
- Erabili Erabiltzailearen Datuen Formatua(I), telefonoa formateatzeko (erabiltzailearen datuen formaturako(I), luze sakatu # tekla, eta, aldi berean, sakatu pizteko tekla, gailua itzalita dagoela). Erabiltzailearen datu GUZTIAK (kontaktuak, mezuak eta fitxategiak) behin betiko galduko dira. Oso gomendagarria da telefonoaren segurtasun-datuen eta profilaren segurtasun-kopia bat egitea formateatu aurretik.

Egiaztatu puntu hauek ere:

Telefonoa ez da pizten

- Egiaztatu bateriaren kontaktuak ondo daudela; atera bateria eta sartu berriro, eta piztu telefonoa.
- Egiaztatu bateriaren kargatze-maila egokia dela, eta kargatu gutxienez 20 minutuz.
- Hala ere funtzionatzen ez badu, erabili Erabiltzailearen Datuak Formatua aukera, telefonoa berrastartzeko⁽¹⁾

Nire telefonoa blokeatuta dago, edo ez du erantzuten duela zenbait minutu

- Berrabiarazi telefonoa,  tekla luze sakatuta.
- Atera bateria, eta sar ezazu berriro. Ondoren, berrabiarazi telefonoa.
- Hala ere funtzionatzen ez badu, erabili Erabiltzaileen Datuak Formatua aukera, telefonoa berrabiaratzeko⁽¹⁾

Telefonoa bakarrik itzaltzen da

- Ziurtatu itzaltzeko teklak ez duela egiten kontakturik beste elementuren batekin.
- Bateriaren kargatze-maila adierazten du.
- Hala ere funtzionatzen ez badu, erabili Erabiltzaileen Datuak Formatua aukera, telefonoa berrabiaratzeko⁽¹⁾

Telefonoa ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu ALCATEL ONETOUCH bateria eta kaxako kargagailua erabiltzen ari zarela.
- Bateriaren kontaktua zikina badago, garbitu ezazu.
- Ziurtatu bateria ondo sartuta dagoela kargagailua konektatu aurretik.
- Egiaztatu bateria ez dagoela guztiz deskargatuta; denbora luzez egon bada deskargatuta, ia 20 minutu igaro daitezke bateriaren karga adierazten duen ikonoa pantailan agertu arte.
- Egiaztatu ohiko tenperaturan kargatzen dela (0 °C eta +40 °C bitartean).
- Atzerrian, egiaztatu sarrerako tentsioa bateragarria dela.


Nire telefonoa ez da konektatzen inolako saretaraz, edo “Sin servicio” bistaratzen da

- Saiatu telefonoa beste kokaleku batetik konektatzen.
- Galdetu operadoreari sareko estalduraren berri.
- Galdetu operadoreari SIM txartelaren baliozkotasunaren berri.
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k)
- Sarean gainkarga badago, saiatu berriz geroago.

SIM txartel baliogabea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Begiratu SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta ote dagoen.
- Egiaztatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

Ezin da deia egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula, eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko dei bat bada, begiratu herrialdeko eta eremuko kodeak ondo dauden.
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela.
- Galdetu zure operadoreari hitzartutako harpidetza zertan den (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegaldiko moduan.

Ezin da dei bat jaso

- Egiaztatu zure telefonoa piztuta eta sare bati konektatuta dagoela (begiratu sareak gainkargarik duen ez ote dagoen eskuragarri).
- Galdetu zure operadoreari hitzartutako harpidetza zertan den (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegaldiko moduan.


Solaskidearen izena edo zenbakia ez da bistaratzen deia jasotzean

- Galdetu operadoreari zerbitzu horretara harpidetuta zauden.
- Deitzen ari den pertsonak bere izena edo zenbakia ezkutatu du.

Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen

- Egiaztatu zure SIM txartela ez dagoela egoera txarrean.
- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak.

Deien soinuaren kalitatea txarra da

- Dei bat egiten ari zarela bolumena doitu dezakezu bolumen-tekla sakatuta.
- Sareko seinalearen intentsitatea egiaztatzeko balio du. 

- Egiaztatu entzungailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak

- Galdetu operadoreari zure harpidetzan zerbitzu hori sartzen den.
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela ALCATEL ONE TOUCH osagarriren bat behar.

Nire kontaktuetako zenbaki bat hautatzen dut, baina ezin dut markatu

- Egiaztatu zenbakia ongi gorde duzula zure fitxategietan.
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia sartu duzula.

Ezin diot kontaktu bat gehitu nire kontaktu-zerrendari

- Ziurtatu SIM txartela ez dela iritsi gehienezko kontaktu-kopurura; ezabatu fitxategiak SIM txartetik, edo gorde fitxategiak telefonoaren kontaktuetan.

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu sareko operadoreari zerbitzu hori eskuagarri dagoen.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziko zenbakia zuzena dela, hemen: “**Mezuak\Erantzungailua**”.
- Sarea okupatuta badago, saiatu geroago.

Keinuka ari den  ikono bat bistaratzen da pantaila nagusian.

- Mezu labur gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian. Ezabatu batzuk, edo gorde telefonoaren memorian.

SIM txartelaren PINa blokeatuta dago

- Jarri harremanetan sare-operadorearekin, desblokeatzeko PUK kodea lortzeko (desblokeatzeko pasahitz pertsonala).

Nola lortu bateriak gehiago irautea

- Bateria osorik kargatu (3 ordu, gutxienez).
- Osorik kargatzen ez baduzu, baliteke gero karga-mailaren adierazlea zehatza ez izatea. Kargagailua deskonektatu ondoren, itxaron 20 bat minutu adierazpen zehatza izateko.

* Piztu atzealdeko argia behar duzunean.

Ezin dut MMSrik bidali edo jaso

- Egiaztatu tokia libre duzula telefonoaren memorian.
- Jarri harremanetan sarearen operadorearekin, zerbitzuaren eskuragarritasuna eta MMSen parametroak egiaztatzeko.
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua
- Litekeena da zerbitzariaren zentroa betea egotea. Saiatu geroago.

Telefonoak ez ditu beste gailuak detektatzen bluetooth bidez

- Ziurtatu bluetootha aktibatuta dagoela eta beste erabiltzaile batzuek telefonoa detekta dezaketela.
- Egiaztatu bi telefonoak bluetootharen atzemaite-eremuan daudela.

Alcatel-Lucenten marka
erregistratua da ALCATEL,
eta TCT Mobile Limiteden
lizentziarekin erabiltzen da.

Eskubide guztiak erreserbatuta ©

Copyright 2014

TCT Mobile Limited

Aldez aurretik iragarri gabe materialak
edo xehetasun teknikoak aldatzeko
eskubidea du TCT Mobile Limited-ek.

www.alcatelonetouch.com

For more information on how to use the phone, please go to www.alcatelonetouch.com and download the complete user manual. Moreover, on the website, you can also find answers to frequently asked questions, upgrade the software via Mobile Upgrade, and so much more.

ALCATEL
onetouch.

smart move.